

Rafa Aldai

KLIMA ALDAKETA, GERTUTIK



KONTZIENTZIA ETA PRAKTIKA

“Ingurumen hezitzailea naiz, eta klima aldaketari buruzko gaien bueltan nabil lanean, Nafarroako Lursarea sozietate publikoan. Aspaldi ari naiz arlo horretan lanean, aurrez Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroan. Militante ekologista izan naiz, eta neurri batean, banaiz oraindik ere”.

“Bizitza balore berrietan oinarritzeko aukera da klima aldaketa”

Gerturako betaurrekoekin begiratzen dio Rafa Aldaik klima aldaketari, tokiko eskalan –gure hiri eta herrietan– dituen ondorioei erreparatuta. Arazoa bezala, konponbidearen parte bat tokian toki ere badagoela uste du, datorrenari egokitzeari dagokionez behintzat. Eta argi du fenomenoak, onik badakar, gure balore eta bizimoduan aldaketa erradikala ekarri beharko lukeela.

ANDER PEREZ **JOSEBA ZABALZA**

Klima aldaketa mundu mailako arazo gisa azaldua izan da.

Tokikoa ere bada?

Bai. Ondorio argiak pairatzen hasi gara: temperaturren igoera, bero bolarak geroz eta ohikoagoak, muturreko fenomenoak hazkundera, itsas mailaren igoera... Horietako bakoitzak ondorio zuzenak ditu. Temperaturren igoerak, adibidez, pertsonen osasunean eragiten du, uraren kalitatea aldarazi dezake, eta kalte egin diezaike laborantzari. Bero boladek hilezkortasuna handitzen dute. Klima aldaketak, gainera, gaixotasun berriak eragin ditzake. Jarduera ekonomikoan ere badu eraginik, adibidez elur turismoan, baita zenbait ekoizpenetan ere.

Errazago kontzientziatzen da jendea arazoa gertu dagoenean?

Hainbat neurriren konbinazioa behar da, antolaketan, eraikuntzan, hezkuntzan... baita energia pobrezia-aren aurka egitea ere. Klima aldaketa estuki lotuta dago energiaren kudeaketarekin, isurketen %70a lotzen da energiarekin. Beraz, araudia zorroztu eta geroz eta muga gehiago

ezartzen bazaio energia sektoreari, litekeena da baliabide ekonomiko gutxien dutenak izatea kaltetuen. Konpentsazioak beharko dira, energiaren garestitzea ez dadin izan klase apalenen kalterako.

Beraz, klima aldaketak ere –a priori neutroa dirudienak – ez digu denoi berdin eragiten?

Ez, inondik inora. Bidegabekeria erantsia da, bai ipar-hego ardatzean, eta gure gizartean bertan. Iparraldeko gizarteak dira klima aldaketaren azkartzea eragin dutenak, baina hegoaldekoak ari dira kalterik handienak pairatzen, eta gainera, horiei aurre egiteko bitarteko gutxien dutenak ere badira.

Tokiko arazoetarako, tokiko konponbideak?

Bai. Bi estrategia daude klima aldaketaren aurrean. Bata da negutegi efektuko gasak murriztea, hau da, arazoaren iturburuari aurre egitea. Ekintza horrek globala behar du: Iruñeak isurpenak zerora murriztuko balitu ere ez luke jatorrian eragiterik izango, isurketa globalean



"BATEN BATI ENTZUN DIOT: 'BIDAIATZEKO ESKUBIDEA DAUKAT'. BAI ZERA! BIZITZA ZORIONTSUA IZATEKO ESKUBIDEA DUZU, BAINA AGIAN BIDAIK MUGATUKO ZAIZKIZU, ZURE ISURKETEN KUOTA GAINDITU DUZULAKO".

dagoelako gakoa. Bigarren estrategia egokitzapena da: klima aldaketa hemen dago, ezinbestekoa da horretara egokitzea. Egokitze hori tokian tokiko estrategiei dagokie batez ere.

Zer estrategiak dira horiek?

Adibidez, Iruñea klima aldaketaren aurrean egokitu daiteke, bere espazio publikoak tenperaturaren igoerara egokituz. Ibaien ur-goraldien aurrean, alerta sistemak ezarri ditzake. Finean, edozein plan garatzerakoan, gakoa da ez hartzea oinarri gisa egungo egoera, etorkizuneko baizik. Pentsa arbolak landatzera zoazela: etorkizuneko klimara egokitutako arbolak landatu beharko zenituzke. Palmondoak, urkien partez. Berdin erai-kinekin, edo errepedeekin.

Dena dela, datorrenera egokitzeko neurriak dira denak. Ez dago saihesterik?

Gauza bat argi da: hemendik urte batzuetara planeta ezberdin batean biziko gara, eta sufrimendua ahalik eta txikiena izateko gure esku dagoen guztia egitea dagokigu. Beharrezkoa da hori modu komunitarioan egitea, taldean, hori delako berme handienetako bat. Bada kontu bi-

txi bat: hondamendien aurrean (Tafallakoa, edo *Katrina* hurakana), jendeak bere onena ematen du, eta guztiz gainditzen ditu administrazioen larrialdi planak. Indar horretan sakondu behar dugu. Bizitza balore berrietan oinarritzeko aukera da klima aldaketa, orain arte gure gizartea oinarritu duten baloreetatik urrunduz.

Nola goaz bide horretan?

The Guardian-eko kazetari batek, Paris-ko akordioaren ostean, halako zeozer esan zuen: "Izugarri aurreratu dugu, baina oso gutxi da behar dugunerako". Orain gutxira arte, lehorte informatiboaz aritzen ginen. Orain, aldiz, gazteek –eta batez ere, emakume gazteek– bultzatutako mugimendu bat dago, eta dena ari dira mugiarazten. Erakundeen aldetik adierazpen asko entzuten ari gara. Mobilizazio sozialak lortu beharko luke horiek edukiz betearaztea. Zorionez, kontzientzia badago, baina klima aldaketaren abiadura hain da azkarra, ez dakigula denborarik izango dugun. Ezinbestekoa da eredu ekonomikoa aldatzea.

Ba al dago horretarako borondaterik?

Gurean, isurketak murriztu diren garai bakarria krisi ekonomikoaren garaia

izan da. Beraz, argi dago klima aldaketa erabat lotuta dagoela etengabe kontsumoa handitzea bilatzen duen gure eredu honekin. Nola atera gaitezke sistema horretatik? Nola egin Iruñea edo Bilbo bezalako hiriek bere karbono aztarna zerora murrizteko? Auto fabrikak itxiko ditugu, ados, eta zertaz biziko dira langile horiek? Edo elkartasuna dago sektore kaltetuak laguntzeko, edo... Gauza askori uko egitea eskatzen du horrek.

Baina egin behar da?

Bai, beharrezkoa da. Batez ere, zenbait balore eta eskubide faltsuri egin behar zaio uko. Baten bati entzun diot: "Bidaiatzeko eskubidea daukat". Bai zera! Bizitza zoriontsua izateko eskubidea duzu, baina agian bidaiak mugatuko zaizkizu, zure isurketen kuota gainditu duzulako. Mugikortasunerako eskubidea dugu, noski, baina mugikortasun jasangarri eta publikorako, ez auto pribaturako. Bidaiak exotikoak baino gehiago, hasi beharko genuke gertuko jakintza baloratzen. Aukera dugu gure bizitzan aldaketa erradikala egiteko, beharrezkoa. Espero dezagun garaiz ibiltzea. ●